



## MAISU-MAISTREN KIDEGOKO IRAKASKUNTZA-ESPEZIALITATEAK INFORMAZIO-OHARRA

2011ko azaroaren 9an, Estatuaren Aldizkari Ofizialean, azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretua argitaratu zen, zeinaren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak erregulaturiko haur- eta lehen hezkuntzan jarduten duten irakasleen espezialitateak eta lortzeko erak zehaztu baitziren.

Dekretua indarrean sartu zenetik, ondoko hauek dira espezialitateak:

- Haur-Hezkuntza.
- Lehen Hezkuntza.
- Atzerriko hizkuntza: Ingelesa.
- Atzerriko hizkuntza: Frantsesa.
- Atzerriko hizkuntza: Alemaniera.
- Heziketa Fisikoa.
- Musika.
- Pedagogia Terapeutikoa.
- Entzumena eta Hizkuntza.

Hauek dira espezialitateak lortzeko era:

1. Otsailaren 23ko 276/2007 Errege-Dekretuak arautzen duen Maisu-Maistren kidegoan sartzeko hautapen-prozesua gainditzea.
2. Beste espezialitateak eskuratzeko:
  - a) 276/2007 Errege-Dekretuaren 52 eta hurrengo artikuluetan arautzen dituen espezialitate berriak lortzeko prozesua gainditzea.
  - b) 1594/2011 Errege Dekretuaren Eranskinean zehazten diren titulazioen jabe izatea.
  - c) Errege-Dekretua indarrean sartu ondoren, Lehen Hezkuntzako arloak hiru urtez eta lanaldiaren %30 baino gehiagotan emateagatik, 3. artikuluen 3 eta 5 ataletan aipatzen diren kasuetan, Lehen Hezkuntzako espezialitatea lor daiteke.

1594/2011 Errege-Dekretua Maisu-maistren kidegoko **karrerako funtzionarioei aplikatzen zaie**, beraz, horiei soilik aitortuko zaizkie bertan jasota dauden espezialitateak, eta bakoitzerako arautzen dituen baldintzekin.

Karrerako funtzionario izaera eskuratzen dutenek EPEn lortutako espezialitatea soilik izango dute bere espedientean. Beste espezialitateak eskuratu ahal izateko, eskaera aurkeztu behar dute Langileak Kudeatzeko zuzendaritzan, Sailaren web-orrian dagoen inprimakia erabiliz. Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du eskaera onartu edo ezesteko.